

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

LANTZIEGOKO UDALA

Hutsen zuzenketa, Lantziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 5. aldaketa puntualari hasierako onespena ematen dion 843/2020 iragarkian egindakoarena

Lantziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 5. aldaketa puntualari buruzko erabakiaren (ALHAO, 34. zk.a, 2020ko martxoaren 23a) iragarkian huts bat antzeman da. Hona hemen hura:

Administrazio Prozedura Erkidearen 39/2015 Legeak 109. artikuluan ezarritakoetako huts bat antzeman da.

Hau dioen lekuan:

Udalbatzak, 2020ko martxoaren 10eko bilkura berezian, hasierako onespena eman zion Lantziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 5. aldaketa puntualari, hain zuzen ere 2 poligonoko 198A lurzatiaren kalifikazioa aldatzeko. Horiek horrela, jendaurrean jartzen da berrogeita bost egun balioduneko epean, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

Hau esan behar du:

Udalbatzak, 2020ko martxoaren 10eko bilkura berezian, hasierako onespena eman zion Lantziegoko Hiri Antolamendurako Plan Orokorraren 5. aldaketa puntualari, hain zuzen ere 2 poligonoko 198A lurzatiaren kalifikazioa aldatzeko. Aldaketa horren ondorioz lurzati hori Zerbitzu Azpiegiturako Azpizona Publiko (ur hornidura eta IngurumenekoTxosten Estrategikoa) kalifikatu zen. Horiek horrela, jendaurrean jartzen da hilabetez, iragarki hau azkenengoz argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Guztiek jakin dezaten argitaratzen da.

Lantziego, 2020ko martxoaren 30a

Alkatea

ITZIAR DE ÁLAVA MARTÍNEZ DE ICAYA